

Irabazi-iturriak

Gure enpresak betaurrekoak eta kaskoak pack-ean salduko ditu, 399,99€-tara, beraz aktiboen salmenta izango da. Sarreraren prezioa kontzertuaren arabera izango da.

Gure bezeroek ordainketa bakarraren bitartez erosi dezakete betaurrekoak eta kaskoak, baina prezioa altua denez, plazoka ordaintzeko aukera izango dute ere. Plazoka ordaindu behar badute, interesekin salduko dira, (399,99€ izan ordez, 439,99€-tara salduko dira).

Urteroko harpidetza egiteko aukera izango dute. Bertan hainbat harpidetza plan egongo dira, adibidez hilabeteroko plana (hilabetean kontzertu bat), hiruhileko plana (hiru hilabetetan kontzertu bat) edo urte erdikoa (urtean bi kontzertu). Harpidetza hauek hartzean, aukeratutakoaren arabera, ordainketa errepikakorra mota bat izango dute.